


AAren etika eta araudia – AA arduratsua lortzelo gida



BASQUE ARTIFICIAL
INTELLIGENCE CENTER

Bazkide diren erakundeentzako gida osoaren bertsio murriztua publiko orokorrarentzat






Aurkibidea

Testuingurua	3
AA etikoa eta legala	5
AA-ri buruzko Europako erregelamendua	7
Gai orokorrak	7

Irudiak

1. irudia. European Commission - Requirements for a trustworthy AI	5
2. irudia. RIA aplikatzeko denbora-lerroa	9



Testuingurua

BAIC erreferente bat da Euskadin adimen artifiziala (AA) garatzeko eta hartzeko, eta inplementazio etiko, kolaboratibo eta jasagarria sustatzen du. Dokumentu honen bidez, BAICek **publiko orokorrarentzako Etika eta Araudi Gidaren bertsio murriztua aurkezten du**, Euskadiko AAren ekosistemako eragileei AAren araudi berria ulertzen eta harekin bat egiten laguntzeko, haien estrategiak eta prozesuak egokitzen lagunduz, bai lege-alderdiak bai alderdi etikoak betetzeko.

Gida berri **honek jarraibide laburtuak eta orokorrak ematen ditu, arauak errazago bete daitezen eta jardunbide arduratsuak eta gardenak susta daitezen** AAren garapenean eta erabileran.



AA etikoa eta legala

AA etikoa eta legala

Zer da AA sistema bat?

Gida honetan, Adimen Artifizialari buruzko Europako Erregelamenduan¹ (ingelesez, AI ACT) jasotako definizioa erabiliko dugu:


“Makina batean oinarritzen den sistema bat, hainbat autonomia-mailarekin funtzionatzeko diseinatuta dagoena, egokitzeko gaitasuna eduki dezakeena ezarri ondoren eta, helburu esplizitu zein implizituarentzako, irteerako emaitzak sortzeko modua sarrerako informazioetik inferitzen duena; adibidez, ingurune fisiko nahiz birtualetan eragina izan dezaketen iragarpenak, edukiak, gomendioak edo erabakiak”.

Zer eskakizun bete behar dira AA fidagarria izateko?

AA fidagarria hiru zutabetan oinarritzen da: legezkoa izan behar du (legeria aplikagarria bete behar du), etikoa (printzipio etikoak errespetatu behar ditu) eta sendoa (modu seguruan funtzionatu behar du, ustekabeko kalterik ez eragiteko). Zutabe horietako bakoitza beharrezkoa da, baina ez nahikoa. Horrela, AA fidagarria izateko, legea betetzeaz gain, beste gauza batzuk ere egin behar dira. Kontuan izan behar dugu garapen teknologikoa legeen aurretik joan ohi dela, eta, beraz, beharrezkoa dela ingurumen-sistemek printzipio etikoak errespetatzea.

Europako Batzordeak sortutako goi-mailako adituen taldeak AA fidagarri baterako egindako jarraibide etikoek funtsezko zazpi baldintza ezartzen dituzte IH fidagarri baterako.

1. irudia. European Commission - Requirements for a trustworthy AI



Zertan dira desberdinak ETIKA eta ARAUDIA?

Ikuspuntu juridikotik, printzipio etikoek ez dute ezertara behartzen. Horren eraginez, printzipio etikoak ez betetzeak ez dakar ondorio juridikorik, modu etikoan jokatzeko ez duen erakunde baten ospeak jasan ditzakeen ondorioen kalterik gabe.

Alabaina, araudian finkatzen diren betebeharrak betebeharrak juridikoak dira; hortaz, ez betetzea legezko arau-hauste bat da, eta horrek ondorio juridikoak eragin ditzake arau-hauste egin duen erakunderako: erreklamazioak, isunak, etab.

¹ https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=OJ:L_202401689



AA-ri buruzko Europako erregelamnua

AA-ri buruzko Europako erregelamendua

Gai orokorrak

Adimen Artifizialari buruzko Erregelamendua² 2024/07/12an argitaratu zen Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean (EBAO), eta indarrean sartu zen 2024/08/01ean. Halarik ere, ez da aplikagarria izango 2026/08/02ra arte. Epe batzuk desberdinak izango dira aurreikuspen jakin batzuetarako, aurrerago azalduko den bezala.

Zein da erregelamenduaren ikuspegia?

Adimen Artifizialari buruzko Erregelamendua produktuaren segurtasunari buruzko araudi bat da, jostailuak, igogailuak, ibilgailuak edo osasun-gailuak arautzen dituztenak bezalakoak.

Produktuaren segurtasunari buruzko araudietan xedatutako eskakizunen helburua da pertsonen osasunean edo segurtasunean kalterik eragin dezaketen produktuak probatuak eta baliozkotuak izan direla bermatzea, merkaturatu aurretik. Halatan, seguruak diren produktuak soilik iritsiko dira merkatura.

Halatan, horrelako araudietan eskatzen da fabrikatzaileak produktuaren egokitasunari buruzko ebaluazioak egiteko³ (hirugarren independenteek ere egin ditzakete), produktuan CE (EE) marka jartzeko, produktua merkatutik ateratzeko arriskurik eragiten badu, erabiltzeko argibideak eskaintzea produktua ongi erabili eta, beraz, kalterik ez eragiteko, etab.

Esan ohi da Erregelamenduaren ikuspegiak arriskuak dituela oinarri, artikuluetatik **lau arrisku-maila eta arauzko hainbat eskakizun daudelako, AAko sistemaren erabilera-kasua edo xedea zein den:**

1. Arrisku onartezina, oinarrizko eskubideak eta Europar Batasunaren balioak urratzen direlako (AAko horrelako sistemak debekatu egiten dira).
2. Arrisku handia osasunerako, segurtasunerako edo oinarrizko eskubideetarako (AAko horrelako sistemak arauzko eskakizunen mendean daude).
3. Norbaiten lekua hartzeko, manipulatzeko edo iruzur egiteko arriskua (AAko horrelako sistemak gardentasun-betebeharren mendean daude).
4. Oso arrisku txikia (Erregelamendutik kanpo geratzen dira).

² 2024/1689 Erregelamendua (EB), Europako Parlamentuarena eta Batzordearena, 2024ko ekainaren 13koa, adimen artifizialari buruzko arau bateratuak finkatzen dituena eta 300/2008 (EE), 167/2013 (EB), 168/2013 (EB), 2018/858 (EB), 2018/1139 (EB) eta 2019/2144 (EB) erregelamenduak eta 2014/90/EB, 2016/797 (EB) eta 2020/1828 (EB) zuzentarauak.

³ Produktuak dagozkion eskakizun guztiak betetzen dituela frogatzeko prozedura, EBn merkaturatu aurretik. Zenbaitetan, egokitasunaren ebaluazioa organismo independente batek egiteko eskatzen da.

Zer arlo geratzen dira Erregelamendutik at?

Adimen Artifizialari buruzko Erregelamendua ez da arlo hauetan aplikatzen:

- a) Xede militarrek, defentsa-xedeak edo segurtasun nazionalako xedeak dituzten AAKo sistemak.
- b) Ikerketa eta garapen zientifikoetarako soilik garatu eta zerbitzuan jarritako AAKo sistemak edo ereduak.
- c) AAKo sistemekin edo AAKo ereduekin lotutako ikerketa-, proba- edo garapen-jarduerak, merkaturatu edo zerbitzuan jarri aurretik. Benetako baldintzetan egiten diren probak ez daude salbuespen honen baitan.
- d) Pertsona fisikoek egindako jarduera pertsonal soilak (ez profesionalak).

Zer erakundeek bete behar dute Erregelamendua?

Erregelamenduan finkatzen diren betebeharrak bete behar dituzte beren aplikazio-eremuaren baitako AAKo sistemak diseinatu eta garatzen dituzten hornitzaileek eta sistema horiek baliatzen dituzten erakundeek. Erregelamenduan, hedaduraren arduradun deritze horrelako erakundeei.

Aurreko bertsio batean erabiltzaile esaten zitzaien, baina termino hori baztertu egin da. Gure ustetan, kontsumitzaile eta erabiltzaileei buruzko araudian erabiltzen den terminologiarekin ez nahasteko jokatu da horrela, aipatu araudi horren hartzaileak produktuak edo zerbitzuak erosten dituzten pertsona fisikoak baitira, etxeko xedeetarako edo profesionalak ez diren xedeetarako.

Halaber, betebeharrak daude erabilera orokorreko AAKo ereduen eta arrisku sistemikoa dakarten AAKo ereduen hornitzaileentzat.

Nor dira AAKo agintari eskudunak estatu-kideetan eta EBn?

Erregelamenduaren helburua AAren erabilera, garapena eta gainbegiratzea modu bateratuan arautzea da, Europar Batasunaren barruan. Horretarako, gobernantza-esparru bat finkatu du Europarako eta estatu-kide bakoitzerako.

1) Europar Batasuna:

- AAren bulegoa (Batzordeari atxikita): erabilera orokorreko AAKo erduei buruzko aholkuak emango ditu, eta horrelako AArako jardunbide onen kodeak prestatzea erraztuko du.
- AAren Kontseilua⁴: aholkuak emango dizkie Batzordeari eta estatu-kideei, Erregelamendua modu koherente eta eraginkorrean aplikatzen laguntzeko.

2) Agintari eskudun nazionalak:

- estatu-kide bakoitzak merkaturatua zaintzeko agintari bat izendatuko du gutxienez, Erregelamendua betetzen dela ziurtatzeko eta zigorrak jartzeko, arau-hausterik baldin badago.
- Adimen Artifizialaren Gainbegiratzeko Espainiako Agentzia (AESIA) izango da Espainiako merkaturatua zainduko duen agintaria.

⁴ Erregelamenduaren aurreko zirriborroetan, AAren Batzordea zen.

Erregelamendua noiz izango da aplikagarria?

RIA 2024ko abuztuaren 1ean sartu zen indarrean. Hala ere, aplikazio-epeak mailakatuta emango dira, AA sistemaren eta/edo haren helburuaren arabera.

2. irudia. RIA aplikatzeko denbora-lerroa



Zer gertatuko da Erregelamendua aplikatu aurretik abian ziren arrisku handiko AAko sistemekin eta erabilera orokorreko AAko ereduekin?

Jada merkatuan dagoen edo zerbitzuan dabilen AAko sistema debekatuta badago, 2025/02/02a baino lehen kendu beharko da.

Gainerako kasuetan, Erregelamendua aplikatuko zaie 2026/08/02a baino lehenago merkaturatu edo zerbitzuan jarri diren arrisku handiko AAko sistemen operadoreei, baldin eta diseinua nabarmen aldatzen bada 2026/08/02a baino lehen.

Dena dela, arrisku handiko AAko sistemak agintari publikoek erabili behar badituzte, hornitzaileek eta hedaduraren arduradunek behar diren neurriak hartu beharko dituzte Erregelamenduko eskakizunak eta betebeharrak betetzeko 2030/08/02an asko jota.